







IBILTARIENTZAKO AHOLKU BATZUK

_Camiño da ribeira ibilbidea mendiko ibilbide labur gisa homologatuta dauka Galiziako Mendi Federazioak eta PR-G 148 du izena. Ondo erreparatu zutabe, harri eta zuhaitz-enborretan aurkituko dituzun **seinaleei**, eta baita bideari jarraitzen lagunduko dizuten balizei ere. Trikimailu bat dago. Ponteceso - Corme joaneko ibilbidea ibaia eta itsasoa beti ezker aldean direla egiten da eta itzulikoa eskuin aldean direla. Ezinezkoa da nahastea.



SINAIS DAS RUTAS DE PEQUENO PERCORRIDO DE GALICIA

-  Continuidade de sendeiro
-  Cambio de dirección
-  Dirección equivocada
-  Baliza



Itsasoak eta ibaiak euren ez den guztia itzultzen dute. **Ez bota zaborrik** bidean, ibai-ibilguan edo itsasoan. Gorde ezazu motxilan eta utzi dagokion edukiontzian ibilbideak amaitutakoan.

_Ez da gomendagarria bakarrik joatea. **Lagunen batekin ibili beti** eta jakinarazi abiatzeko ordua eta iristeko aurreikusitakoa. Jarraitu bidezidorrari eta kontu handiz ibili itsaslabarren inguruan.

_Ibilbideari ekin aurretik **eguraldiaren iragarpenari begiratzea** gomendatzen da.

_**Eraman telefono mugikor bat bateria kargatuta**, beti komunikatuta egoteko. Eta *Smartphone* bat bada, gainera, ibilbideetan aurkitzen dituzun QR kodeen informazioa kontsultatu ahal izango duzu.



_Eraman arropa eta oinetako egokiak, batik bat lurzoru irregularretan distantzia luzeak oinez egiteko ohiturarik ez baduzu. Ibilbideari ekin aurretik gomendagarria da beroketak eta luzaketak egitea, eta baita bukatutakoan ere.

_Eraman botila bat ur bidean hidratatzeko.

_Erabili eguzkiaren aurkako babesa ez erretzeko, baita egun hodeitsuetan ere.

_Errespetatu ezazu natura eta landare eta animalien habitata, galtzeko arriskuan dauden espezieak izan baitaitezke. Ez atera bidean aurkitzen dituzun landareak.

_Ez sartu espezie exotikoak, ingurumenari kalte egin diezaioketenak.

_Konturik handienaz jokatu suteen aurrean. Ez surik egin ezarritako garaietatik eta gaitutako eremuetatik kanpo.

_Errespetatu ingurunea eta gainerako ibiltariak denok izan dezagun naturaz gozatzeko aukera. Nekazaritza- eta abeltzaintza-ustiapenak ondasun pribatuak dira, kaltetu behar ez direnak.

_Ibilbideen zati batzuk soilik daude ibilgailu motordunentzako egokituta.

_Kirol-arrantza egiteko dagokion baimena eduki behar da.

_Itsaski-bilketa debekatuta dago. Jarduera pribatua da.

_Debekatuta dago kanpatzea.

_Ez eraman animaliak aske habitat babestuetan.